Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6039

AGINDUA, 2009ko urriaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, ikastetxeei buruzko 2009-2010 ikasturteko informazioa eredu bateratuaren bidez biltzeko dena.

Hezkuntza-plangintza eta kudeaketa arloetako beharrei erantzun ahal izateko eta estatistika ondorioetarako, unibertsitateaz besteko irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan 2009-2010 ikasturteari buruzko bateratutako informazioa bilduko da. Horretarako, Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzaren proposamenez, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan beren egoitzak dituzten unibertsitateaz besteko ikastetxe guztiek, Eskola Jarduera Galdesorta izenpean antolatu den galdera zerrendei erantzun beharko diete eta bete zehaztasunez eta egiatasunez.

Bigarrena.– Ikastetxeko zuzendariak gainbegiratu beharko du ereduak nola bete diren, izan ere, honek abalatzen baitu, bere izenpeaz, ematen den informazioaren egiazkotasuna. Galdesortak bete ondoren aurkeztu egingo dira, Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzak edo lurralde ordezkaritzek horretarako ezarritako epe barruan aurkeztu ere; eta beroiek aztertu eta landuko dituzte galdetegiok.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Baliabide Material, Informatika eta Antolamenduko zuzendariari eta Hezkuntzako Lurralde ordezkariei esku ematen zaie, agindu honetan ezartzen dena garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Bigarrena.– Agindu honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6039

ORDEN de 16 de octubre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, sobre la recogida de información unificada en materia de centros docentes correspondiente al curso 2009-2010.

Para atender a las necesidades en materia de planificación educativa, de gestión e, igualmente, a efectos estadísticos, se va a proceder a la recogida unificada de la información necesaria, correspondiente al curso 2009-2010 en todos los Centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco que imparten niveles no universitarios. Por ello, a propuesta de la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización,

DISPONGO:

Primero.– Todos los centros educativos no universitarios, situados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, deberán responder y cumplimentar con la mayor precisión y rigor posible los cuestionarios diseñados al efecto y agrupados con la denominación de Actividad Escolar.

Segundo.– La cumplimentación de los modelos correspondientes será supervisada por el Director del Centro, el cual avala con su firma la exactitud de la información. Una vez cumplimentados los cuestionarios serán enviados dentro de los plazos que determinen la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización o las Delegaciones Territoriales correspondientes, las cuales procederán también a la revisión y elaboración de los mismos.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se autoriza a la Directora de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización y a los Delegados Territoriales de Educación para que tomen las medidas precisas para el mejor desarrollo y aplicación de lo dispuesto en la presente Orden.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de octubre de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.